



## KIROLETAKO UDAL INSTITUTUAREN ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN BILERAREN AKTA

**Saioaren izaera eta hurrenkera-zenbakia:** Ezohikoa 2020/8

**Data:** 2020ko abenduaren 10a

**Hasiera ordua:** 13:00

**Amaiera ordua:** 13:30

Bide telematikoen bitartez egina.

### **Bertaratutakoak**

Presidentea

Danel Bringas Egilior jn.

Bokalak

Eusko Abertzaleak Udal Taldea (EAJ-PNV)

Itsazain Ortolatxipi Ibañez jn.

Cristina Azpiolea Veiga and.

Gorka Txarte jn.

Albaro Aresti Orella jn.

Jon Carrera Rodero jn.

Euskal Sozialistak Udal Taldea (PSE-EE-PSOE)

Pedro Martínez González jn.

Mario Gómez Pérez jn.

Olga Pastor Albizu and.

EH Bildu Santurtzi Udal Taldea

Amaia Ginea Mardones and.

Carlos Sáez Méndez jn.

Elkarrekin-Podemos-Ezker Anitza Equo Udal Taldea

Ainhoa Lopera Corada and.

Atxiki gabeko zinegotzia:

Cristina Arkotxa Pinedo and.

Autonomiadun Erakundearen zuzendaria: Bonifacio Teruelo Ferreras jn.

Kontu-hartzailea: Jose Miguel Paredes Cisneros jn.

Idazkari Eskuordea: José Fernando García Pañeda jn.

Kontseiluburu jaunak batzarrari hasiera eman dio, eta deialdiaren zerrendako gaiak jorratzen hasi dira.

**BAKARRA. ONESTEA, HALA BADAGOKIO, ZERBITZU-KONTRATUAREN ESPEDIENTEAREN HASIERA ETA BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN ETA TEKNIKOEN PLEGUAK (BI LOTETAN BANATUA), ZEINAREN XEDEA DEN BEZEROAREN ARRETARAKO INSTALAZIOAK IREKI ETA EGOKITZEA, KIROL-INSTALAZIO, ZERBITZU ETA JARDUERETARAKO SARBIDEA KONTROLATZEA, SOROSPEN-ZERBITZUA EMATEA ETA IGERILEKUKO JARDUERA ETA IKASTAROAK EMAN ETA GARATZEKO LAGUNTZA TEKNIKOA ESKAINTZEA SANTURTZIKO UDALEKO KIROL INSTITUTUAREN MIKEL TRUEBA ETA KABIEZESEKO KIROLDEGIETAN, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ**

Kontseiluburu jaunak hasiera eman dio gaiari. Horrela bada, proposatu du onestea aipatutako kontratuaren baldintza administratibo berezien eta baldintza teknikoaren pleguak eta espedientea abian jartzea, Artezkaritza Kontseiluko kideei alde zuzenetik helarazitako dokumentazioan azaldu bezala.

Hitzartzeko txandaren ostean, kontseiluburu jaunak proposamenaren bozketa egin du.

Kontseiluburu jaunak eta Eusko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak Udal Taldeetako ordezkariak aldeko botoa eman dute (bederatzi boto), Elkarrekin Podemos Udal Taldeko ordezkariak eta Atxiki gabeko zinegotziak abstentzioa agertu dute (bi boto) eta EH Bildu Udal Taldeko bi zinegotziek aurka bozkatu dute (bi boto). Horrela bada, Artezkaritza Kontseiluak, gehiengoz, ebatzi du zerbitzu-kontratuaren espedientearen hasiera eta baldintza administratibo berezien eta teknikoaren pleguak onestea, zeinaren xedea den bezeroaren arretarako instalazioak ireki eta egokitzea, kirol-instalazio, zerbitzu eta jardueretarako sarbidea kontrolatzea, sorospen-zerbitzua ematea eta igerilekuko jarduera eta ikastaroak eman eta garatzeko laguntza teknikoa eskaintzea Santurtziko Udaleko Kirol Institutuaren Mikel Trueba eta Kabizeseko kiroldegietan.

Batzarraren grabazio osoa honako esteka honetan dago:

[https://santurtzieus.sharepoint.com/sites/ConsejoRectorDelInstitutoMunicipalDeDeportes/Documentos%20compartidos/General/Grabaciones%20Sesiones%20Consejo%20Rector/IMD\\_2020-12-10\\_firmado.mp4](https://santurtzieus.sharepoint.com/sites/ConsejoRectorDelInstitutoMunicipalDeDeportes/Documentos%20compartidos/General/Grabaciones%20Sesiones%20Consejo%20Rector/IMD_2020-12-10_firmado.mp4)

Jorrazeko beste gairik egon ez denez, kontseiluburu jaunak batzarra amaitutzat eman du akta honen hasieran adierazi den egun eta orduan. Eta nik, organo honen idazkari eskuordea naizen honek, hau guztiau ziurtatu egiten dut.